

Distopia errealitatea da jada

Miren AZKARATE
BADIOLA

Eguraldiaz hitz egiten dugunean, maiz igogailuko hizketaldietan bizilagunarekin edo ezezagun horrekin zertaz hitz egin ez dakigunean erabiltzen dugun errekurtoa da. Nik ez dudanez igogailurik eta normalean edozertaz edozeinekin hitz egiteko arazorik ere ez, eguraldiaz hitz batzuk egin nahi nituzke gaurkoan.

Urri erdialdean gaude eta 30 gradu inguruko tenperaturak ditugu azken egunetan, asteetan. Inguruko oro, eta jendea orokorrean, pozik nabaritzen dut. Ni neu ere halaxe nagoela ezin ukatu. Nahiago

dugu udako giroa negukoa baino, ezta? «Elurra gustuko dut, baina eguraldi hau ederra da», «probestu beharko dugu uda luzatze hau». Horrelakoak entzuten ditut kalean egunotan. Ados, baina uda aspaldi pasa da!! Eta San Martin egunerako hila-bete falta da udaratxoa bizitzeko. Eskue-tatik alde egin digu honek lagunak, eta ni benetan kezkatzen hasita nago. Kuadri-llako batek bere amaren gereziondoa aurtan bigarren aldiz loratzen ari dela esan zidan, udaberrian eta orain.

Aldatzen ari da orain arte ezagutzen genituen urtaroen ordena. Irudipena

dut azken urteotan ez ditugula lau urta-ro gure herrian, gutxinaka bi izatera igarotzen ari garela. Eta badakit ez gare-la aldaketa hauek pairatzen ari garen bakarrak, beste leku batzuetan are bor-titzagoak direla eta ez direla gurean be-zain gustukoak.

Honek gainera jada ez du atzera bueltarik, orain urte batzuk alarma go-rri denak piztu zirenean ate joka ge-nuen klima aldaketa barruraino dugu sartua. Euskal Herri tropikala jada ez da distopia bat, abestiak dioen bezala, errealitatea da. •

Iritsi da eguna, Joxemiel

Amagoia
MUJIKA TELLERIA

Hezkuntza eta hizkuntza ere-duen eztabaida pil-pilean, politikariak elkarri errietan eta herritarrak tenis partida batean; burua hara, burua hona.

Bitartean, belarri izkinatik gure gazte-txoak entzuten ditugu euskaraz hiru esaldi segidan josi ezinik. Askok euskara jaso dute etxean eta eskolan, gai dira euskaraz fin aritzeko, badute euskaraz zein gaztelaniaz aritzeko gaitasuna, bai-na hiru esalditik bat, bost hitzetik bat, gaztelaniaz lehertzen zaie. Nahi gabe bezala. Euskararen alde daude, euskara-ren aldeko mezuarekin lata ederra eman diete gurasoek eta irakasleek, bai-na haiei gaztelaniaz ihes egiten die bu-rutik mingainera eta hortza artetik kan-pora. Zergatik? *Sinmas*.

Lazkao Txiki jakintsuak esana utzi zuen: «Hemendikan urte batzuetara,

denak erdaraz arituko gara, euskaraz ari garelakoan». Iritsi da eguna, Joxemiel.

Sentsazioa daukat –eta ez nuke ezko-rra izan nahi– euskaldunak sortzeko gaitasuna makaldu zaigula. Egia da euskaraz dakitenak gero eta gehiago direla, adin batetik beherako herritar denek euskaraz dakitela –horretarako egin du lan hezkuntzak–, baina kalean belarria jarri besterik ez dago krakatekoa senti-tzeko. Batzuetan, nahiago nuke gorrare-na egin eta ez entzun.

Mina ematen du gurasoak euskaraz eta haur txikiak erdaraz sumatzea, jo eta su. Fruta-dendako ilaran; amak euskaraz, sei urteko neskatoak gaztelaniaz, amak euskaraz, neskatoak gaztelaniaz, amak euskaraz...

Amaren pazientzia infinitua miretsi dut, nik honezkero zaunka egina nion. «Niri euskaraz hitz egin».

Egia esan, ez dakit zein den taktika onena, etengabe euskaraz egiteko agin-du edo paso egin. Akaso etengabe ma-traka ematea ez da ona; agian nazka hartuko diote euskarari; gerta daiteke aginduari kontra egiteagatik erabat baz-tertzea euskara... Jakingo bagenu zein den estrategia, zein edabek piztuko duen euskara, nola kargatuko diogun euskarari bateria...

Kontua ez dago erraza, baina asko daukagu jokoan. Uste dut ezin garela errenditu. Euskarari soineko berria josi beharko diogu, egungo gaztetxoentzat erakargarria, *guaya* izan dadin.

Eta politikari batzuek ulertu beharko dute euskara ez dela *guayarena* egiteko txanpona, orain eman, orain kendu. He-rri honek euskaraz arnastu nahi du eta horretarako neurriko hezkuntza eta ta-mainako agintariak merezi ditu. •